

## ENPRESAREAN FOROA

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartean eskuartean dugun **Enpresarean -Enpresa eta profesionalen sarea-** proiektuaren zati bat da foroa.



Ziurtagiriaren Elkartearen helburu nagusia da **alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea, euskaraz lan egin eta bizi ahal izateko dauden espazioak identifikatzea, babestea eta gehiagotara zabaltzea, gure egunerokoan eragina duten espazio guztietan euskarari lekua egitea** funtsezkoa baita. Enpresarean proiektuarekin ere, zuzenean ari gara eragiten enpresaren eremuan euskararen presentzia gero eta handiagoa izan dadin.

Enpresarean-ek helburu nagusi hauek ditu aurtengorako:

- 1) ENPRESAREAN proiektua esparru berrietara zabaltzea eta ezagutaraztea.
- 2) Euskaraz lan egiten duten edo-eta zerbitzuak eta produktuak euskaraz eskaini nahi dituzten profesionalen eta organizazioen elkargunea izatea.
- 3) Arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresen/ profesionalen artean elkarlana sustatzea eta esperientziak zein jakintzak trukatzeko.
- 4) Baliabideak, esperientziak eta jakintzak partekatzea.
- 5) Euskaraz lan egin nahi duten edo-eta zerbitzua euskaraz eskaini nahi duten organizazioei/ profesionaleri erraztasunak ematea, eta euskarazko zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten entitateei/ profesionaleri salmentarako gune bat eskaintzea.
- 6) Enpresei/ profesionaleri negozio-aukerak handitzea.
- 7) Proiektu/zerbitzu berriak sustatzea, euskaratik eta euskaraz.
- 8) Euskararen prestigio soziala areagotzea.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartean eskuartean dugun Enpresarean proiektuaren zati bat da FOROA. Hor daude orain arte egindako azokak, jardunaldiak, gaurkotze fasean dagoen [www.enpresarean.eus](http://www.enpresarean.eus) plataforma, enpresa eta profesional euskaldunen komunitatea batzen ari dena edo [lansarean.eus](http://lansarean.eus) lan-ataria. Orain arte, askotariko ekimenen bidez, urtean behin behintzat, sare hori osatzen dutenei aurrez aurre berba egiteko aukera eman nahi diegu.

**Enpresarean FOROen bidez, maiztasuna handitu eta eremu geografikoa zabaldu nahi dugu,** Euskal Herri osoan egoteko eta, topaketa izateaz gain, enpresa ikuspuntutik zerbait ikasteko aukera ere eskaini nahi dugu. **Enpresen eta profesionalen arteko hausnarketa eta elkarrekintzarako gune bat izango da.** Enpresarean FOROaren formula izango da aditu bat(zu)en eskutik (gosari-)hitzaldi bat eskaintzea, ideiak eta hausnarketak partekatzen lagunduko duena, eta ondoren elkarlana bideratzeko topagunea.

Orain arte FORO hauek egin dira:

I.

Enpresarean Foroa: 2015-07-16. [Enpresarean Foroaren lehen hitzaldia](#) egin du **David Sánchez Bote** MIKeko Zuzendari Nagusiak **Irungo Ficoban**. Sánchezek nabarmendu du globalizazioaren garaian “produktu globalak baino, enpresa globalak behar” ditugula. Horretarako “elkarlana” behar dugula zehaztu du.



II.

[Enpresarean Foroa: 2015-09-30](#) Itziar Galdos, Gasteizko Europa jauregian: "Bost milioi euroko itzulera ekonomiko du Gasteizko triathloiak Araban"



III.

### [Enpresarean Foroa: 2015-10-22](#)



Enpresarean Foroaren hirugarren saioa egin dugu **Joseba Barandiaran** ekonomialariarekin **Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean**. Ekonomiaren inguruko gai asko jorratu ditu ia bi orduko solasaldian: ekonomiaren hazkundera, langabezia, enpresen nazioartekotzea, finantzazioa, ekonomia soziala, euskara lan munduan...

Ongi etorri beraz Enpresarean Foro honetara.